

Arkitektura Ondarea

Kulturaren Euskal Planaren Arkitektura Ondarearen
taldearen bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

SARRERA: DIAGNOSTIKOA	3
2. AMIA ANALISIA	4
INDARRAK	4
AHULEZIAK	6
MEHATXUAK	9
AUKERAK	10
3. JARDUERA-ILDOAK	11
LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK	14

SARRERA: DIAGNOSTIKOA

Agerikoa dirudi arkitektura-ondareko elementu asko zaindu gabe daudela, inbentario-eta kalifikazio-prozesuak ez direlako erabat egin. Horregatik, zaila da EAEko Arkitektura Ondarearen egiazko egungo egoera ezagutzea. Kultur ondarea birgaitzeko, berreskuratzeke eta balioztatzeke dagoen laguntzarik ezak ez du arazoa nabarmendu besterik egiten. Batez ere, hauek aintzat hartuta: arkitektura-ondarea hutsal bihurtzeko dagoen arriskua masa-kontsumora zuzentzean, ondare-eraikinetako identitate historikoaren funtsezko ezaugarriak hondatzea gaizki dokumentatutako esku-hartzeen ondorioz, fatxadismoa, eta abar.

Bestetik, monumentuen eskasietatik kultur aberastasunera igarotzea hain izan da bat-batekoa, non ez baita oraindik ondo barneratu. Profesional akademiko nahiz arkitektura profesionalen eta administrazioko teknikarien artean konplizitaterik ez egotea eragiten du horrek, arkitektura-ondarearen esanahia desberdin ulertzen dutelako. Hala ere, dugun izugarritzko ondareaz ohartzeak kontzeptuzko bilakaeretarako balio izan du. Bilakaera horiek ikuspegi berri bat eragiten dute: ondare-elementuak biderkatu egin dira Monumentu-ondarea Kultur ondare bihurtzen uzten dutelako, EAEko arkitektura historikoaren kalitatea nabarmentzen da, bere indar ekonomikoa onartu da, eta abar.

Horregatik, ondare arkitektonikoaren kudeaketa hobetzeko, uste da zaharberritze eta inbentario zientifiko orokorrean gauzatu beharreko jarduerak funtsezkoak direla. Baita Hirigintza arautzea ere, zaintze- eta zaharberritze-prozesuak hobetzeko. Bestalde, eta ikerketa- eta dokumentazio-lana indartzeko, I+G politikak eta EAEko Kultur Ondarearen Zentroa sustatu egin behar lirateke. Horrekin guztiarekin, kontzeptualizazioan, balioespenean eta EAEko Ondare Arkitektonikoak eskaintzen dituen esku-hartze aukera handietan lanean jarraitzea izango litzateke helburua.

2. AMIA ANALISIA

INDARRAK

- Azken hamarkadetan, "monumentu historiko-artistikoei" buruzko kontzeptu-aldaketa garrantzitsuak izan dira, eraikitako ondarearen ikuspegi oso bat finkatu dutenak; besteak beste, hurrengo ezaugarriengatik bereizten dira:
 - Babes-eremuak arkitektura gehiagotara zabaldu dira, prozesu bat garatu da eta objektu-arkitektura izatetik Multzoa, Zentro historikoa, Gune historikoa, Kultura-paisaia, Industria-arkitektura, Bertako Arkitektura izatera igaro da.
 - Ondarearen potentzialtasunen dibertsifikazioa ikusiko dugu, ez soilik denon oroitzapen gisa edo ezaguera historikoa izateko ezinbesteko tresna gisa, herrien garapen iraunkorrerako lehentasunezko eta ezinbesteko baliabide sozioekonomiko gisa baizik.
- 1980az geroztik, EAERI Arkitektura-ondarearen gaian eskumen eksklusiboak ematearekin batera, kontzeptualizazioan, balioespenean eta arkitektura-ondarean esku-hartzeko aukeretan aldaketa garrantzitsuak izan ziren, elkarren segidan. Adierazi behar da, esate baterako, deszentralizaziori esker "onartu" eta aintzat hartu zirela arkitektura-tipologia eta arkitektura-aldiak, lehenago alde batera utzita zeudenak.
- Ondare-elementuak asko ugaritu dira, kontuan hartuz gero, tipologia berriez gain (hala nola etnografia-ondarea, industria-ondarea eta ondare garaikidea), arkitekturan berriz aintzat hartu diren elementu askoren balio historikoa eta dokumentala (ituraz txikiak diren arren), horien ezaugarri estetikoak edo kanon estilistikoak haraindi. Esan liteke "kultur ondarea" kontzeptuak "monumentu-ondarea" kontzeptua ordezkatu duela, eta, era berean, EAERIko arkitektura historikoen kalitatea oso ona dela onartu da.
- Euskal Autonomia Erkidegoa hain igaro da bat-batean monumentuen urritasunetik (maila unibertsaleko estiloa duen arkitektura-lanen gabezia) kultur aberastasunera,

non oraindik ez baita ondo barneratu eremu akademikoan, instituzionalean, profesionalean eta gizartean. Hala ere, onartu behar da sektore horien artean administrazioa dela aurrea hartu ohi duena, lurraldearen ikuspegi osoa duelako eta arautzeko, zigortzeko eta esku hartzeko gaitasuna duelako.

- Indar ekonomikoa duela eta, bereziki, kultur turismoaren ezinbesteko baliabidea dela onartzea da gizartearen joera berrietako bat da, arkitektura-ondarearen pertzepzioari eragiten diona. Orain dela bi hamarkada, kontzeptu batzuek inor lotsarazi zezaketen, esate baterako, ondarea errentagarria zela esanez gero. Egun, herrialde-plangintzaren ardatz nagusiak dira, eta plangintza hori gizartearen garapen iraunkor eta neurrizkoari begira dago. Halaber, oinarrietako bat da ondare-baliabideen inbertsioa gizartean legitimatzeko.
- Gizartean sentsibilizazioa eta hedapena egin da hedabideen bidez (prentsa, irratia, telebista edo zinea) Arkitekturari eta Arkitektura- eta paisaia-ondareari buruz, oro har, azken urteetan. Hala ere, ekimen bakanak eta pribatuak dira, gehienbat, oraindik.
- Bilboko elizbarrutia Bizkaiko Aldundiarekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea elkarrekin (Elizbarrutia, Parrokiak, Aldundia eta Udalak) inbertsio bat egiteko aukera izan da, eta monumentuak birgaitzeko 72 milioi euro eman dituzte 1985-2003 aldian. Berrehun eraikin baino gehiago birgaitu dira.
- Gotzaingoarekin hitzarmenak izateak aukera ematen du erlijio-ondarean kontrol handiagoa izateko.
- Herri-ondarea zaintzeko diru-laguntzak emateak (baserriak, errota, eta abar) arkitektura-ondarearen gaian sentsibilizazioa handitzen eta zabaltzen laguntzen du .

AHULEZIAK

- Gaur egun ez da kontuan hartzen egungo arkitektura, Arkitektura-ondareaz hitz egiteko garaian.
- Oraindik ez da lortu konplizitate eta gaitasun teoriko egokirik ondarearen katean partaide diren akademia-profesional, arkitektura-profesional eta administrazioko teknikari gehienen artean. Eraikitako ondarearen ikuspegi formalistak eta estilistikoak pisu gehiegi du profesional horiek trebatzean, eta egiazko arkitektura-elementuak ikusteko, aztertze eta interpretatzeko duten gaitasunari sakontasuna kentzen diete. Arkitektura-elementu horiek mota askotakoak izaten dira eta konplexutasun historikoa izaten dute; oso zaila da horiek estilo batera edo tipologia ideal batera murriztea. Profesional horien hezkuntza urria da birgaitze, eraikitze-teknika, eta antzeko gaietan. Arkitektura-eskolak instalazio berria eraikitze jarduerara bideratuta daude, non hurbilen dagoen etorkizunean gero eta gehiago sumatzen baita profesionalen enkargu gehienak birgaitzeetan esku-hartzera zuzenduko direla.
- Koordinazioa falta da sektoreko politiken artean, eta horrek eraikitako Ondarean eragiten du: Azpiegiturak, Etxebizitza, Lurraldearen antolamendua, eta abar. Administrazioaren hainbat mailaren arteko elkarlana (Gobernua, Aldundia eta herriak) ez dago behar bezain egokituta. Izan ere, ondarea zaintzeko ezar daitezkeen legeek kontrakoa esaten dute askotan. Eskumenik ahulena, mugagabeena eta zaintzarik gabekoena udalena da. Ezinbestekoa dute ondarea babesteko eta zaintzeko lanetan sartzea.
- Arkitektura-ondarea sektoreka antolatuta dago familia handietan: erlijio- eta hilobi-ondarea, landatarra, egoitza-ondarea, zibila, herri-lanak, industriaurrekoa eta hirigintzakoak, eta horietako asko, era berean, azpisailkatu egiten dira garai historiko-estilistikoetan. Ildo horretan, esan daiteke EAEko Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrean emandako tratamenduan gehiegi bereizi dituztela elementu horiek: profesional bakoitzak eta irizpide heterogeneoekin bananduta eta irizpide heterogeneoekin aztertzen ditu. Ondare-familia horiei buruz pixka bat pentsatuz gero, ohartuko dira sailkatu nahi horrek kultur ondarearen interpretazio orokor modernoari eragiten diola.

- Irizpide utilitaristak eta formalak gailentzen dira. Gehiegi berrerabiltzen dira. "Hainbeste berrerabiltzen dira, non birgaitzeak duen arazo nagusietako bat baita. ICOMOSek ere pentsatu zuen lan- eta sentsibilizazio-kanpainetako ardatz gisa, 1997-99 hirurtekoan, gure monumentuen zentzuzko erabileraren aldarrikapena proposatzea.¹
- Badaude "jarduera batzuk gaur egun ohikoak direnak, non komeni baita zerbait egitea. Lehenik eta behin, fatxadismo deritzona, hau da, eraikin baten barnealdea hondatzea "kontserbatu" eta berrerabili nahi delako, eta fatxada soilik mantentzea. Birgaitzearekin zerikusirik ez duen jarduera da (...), baina komeni da salatzea, gero eta monumentu-eraikin gehiagori eragiten baitiete egunak aurrera doazen heinean.
- Egiaztatu da ez dagoela ondare garrantzitsurik, nazioartekorik, EAeko arkitektura historikoan.
- Jendeari arkitektura-ondarean sartzea mugatzen zaio.
- Arkitektura-ondareko milaka eraikin babes juridikorik gabe daude, inbentarioaren eta kalifikazioaren administrazio-prozesuak guztiz bukatu ez direlako. Horren arrazoia giza baliabiderik ez egotea izan daiteke, eta negatiboki eragiten du Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko babes-politikan. Ez dago arkitektura-ondarea eraginkorki zaintzeko kontrol-erakunde eraginkorrik. Horrek ekintza burutu eta oportunisten politika bat egotea errazten du.
- Udalen autonomia hirigintzaren gain. Batzuetan, tokiko udalbatzek gaizki ulertzen dute, eta zentzugabeki gairiditzen dituzte arkitektura-ondare propioa babesteko oinarrizko irizpideak (enbarazu edo traba gisa), ustezko "herriaren garapeneren" mesedetan, eta, oro har, etete demagogikoa egiten dute.
- Kultur ondarea birgaitzeko, berreskuratzeko eta balioztatze laguntza ekonomiko gutxi dago. Gehiago saiatu behar da ekonomia- eta finantza-motako pizgarrien eta laguntzen gain ikerketarako, kontserbaziorako, berreskurapenerako, babeserako, hedapenerako, plangintzarako, eta abarretarako laguntzak sortzeko.

¹ Puntu honetan, taldeak nabarmendu nahi du eskuarki gaitz gutxien eragiten duena aukeratzeko dela, eta, batzuetan, gehiegi berrerabiltzen dela eraikina ez hondatzeko. Agian, beharrezkoa litzateke arriskatzea eta eraikina hondatzea, behar berrietara egokitze. Izan ere, eman dakioken erabilera identitaren ezaugarrietako bat da.

- Balio-katean saiakera handi bat egin da, baina ez dira neurri praktikoak garatu birgaitutako eraikinak iraunkorki zaintzeko; neurri horiek protokolo batean eta hori praktikan jartzean oinarritzen dira: esandako eraikinak berraztertze eta mantentzeko lanak egin behar dira aldian behin, garaia baino lehen ez hondatzeko.
- Arriskua dago arkitektura-ondarea balioesteko baliabideak oker murrizteko, eta, ondorioz, ahalmen gehiegirekin erabil daitezke (inbentario osoa ez egitea, aldi baterako plangintza eta aldi baterako aurrekontua).
- Ez da ofizialki (araututa) onartzen kultur ondarearen inbentario zabala, bere hedapena eta borondatea eta ondasunak babesteko gaitasuna. Gainera, segimendua egiteko eta etengabe eguneratzeko borondaterik ezaren ondorioz, lehentasuna du inbentarioaren izaera arau-emaileak, eta ezagutzazko berezko funtzioa galdu du.
- Baliabide ekonomikoak eta arau-emaileak falta dira ustezko edo benetako kalteen (gaur egungo sistema sozioekonomikoan) arazoari aurre egiteko. Horrek higiezinaren ondasunak kultur ondare gisa aitortzea ekarri du.

MEHATXUAK

- Ez dago komunikaziorik ondarearen gaien eskumena duten administrazioen artean. Informazio-teknologia berriek eskaintzen dituzten erraztasunak izan arren, oso uzkurak izaten dira beren datuak globalki partekatzeko.
- Arriskua dago ondare arkitektonikoa gutxieteko eta esku-hartzeak masa-kontsumorako egiteko.
- Ohikoa da identitate historikoaren funtsezko ezaugarriak hondatzea gaizki dokumentutako esku-hartzeen eta berehalako errentagarritasun ekonomiko eta politikoa lortu nahi duten jardueren ondorioz.
- Ondarea sortzeko hauskortasuna dago, eraikinak azkar zahartzen direlako eta zailtasunak daudelako erabiltzaileek eraikin horiek zaharberritzeko.
- Arriskua dago Eraikitako Ondarea baliabide gisa identifikatzeko, horretarako irizpideak lehendik argi jarri gabe daudelako.
- Hirigintzako jarduerak asko eragiten du ondare landatarrean edo industria-ondarean, hiri-garapenerako aukera duten lurretan badaude. Arriskuan jartzen du, egunero eta etengabe, ehunka ondasun zaintzea.
- Hirigintza-jarduera eta eraikitzailea hain garrantzitsua den lurraldean ondare arkitektonikoa babesteko ditugun tresnak motelak eta konplexuak dira (7/1990 Legea). Hori dela eta, Euskal Kultur Ondarearen Zentroak larrialdiei egiten die kasu beti, gutxi programatuta.

AUKERAK

- Ondarearen interpretazioa eta kudeaketa politikoa kudeatu, behar politikarena ez den ikuspuntu lotesle batetik.
- Ondare arkitektonikoa gizarteratzeko tresna gisa indartu behar da (komunitateak ezagutzen du eta bat egiten du berekin), komunitateak eskubidea baitu gozamen-tresna gisa erabiltzeko edo bere irudia kanpora zabaltzeko .
- Ondare Arkitektonikoaren kontzeptua gero eta barneratuagoa dagoela aintzat hartuta, gehiago barneratzeko, egokia litzateke ondarea zabaltzeko etenik gabeko politika sustatzea eta informazio-tresna publikoak sortzea, horiek argitalpen-aukera handia izan behar lukete, eta erreferentziagune sendo bat interneten, gaur egun ez dagoena.
- Ondarearen kontzeptua gehiago sozializatzeko, gehiago ager liteke hezkuntzan. Izan ere, hezkuntzan ondarea ezagutzuz gero, diziplinarteko ezagutzak eskaintzen ditu, eta hezkuntzan garrantzitsuak diren balio soziokulturalak, identitatearen ezaugarri gisa kolektiboki onartu direnak.
- Azken urteetan sentikortasun handiagoa dago historia eta ondarea identitatearekin lotzeko, garrantzi handiagoa duelako hurrengoentzat: gizabanakoak, familiak, auzoak, herriak eta gainerako lurralde-esparruak. Igartzen da, besteak beste, genealogia gehiago egiten direlako, baserriak berreskuratzen direlako eta hala ondare arkeologikoa nola etnografikoa, dokumentala eta monumentala birgaitzen direlako.

3. JARDUERA-ILDOAK

1. *Politikak, koordinazioa eta ekimen publikoak*

- Handitzen ari den landa-turismoa laguntzen eta egoki orientatzen duten politikak planifikatzea, aldi berean balio dezan ondarearen benetakotasuna zaintzeko eta euren komunitateak garatzen laguntzeko, identitatea galdu gabe. Emango lituzketen baliabideak zaintzarako zuzendu ahal izango lirateke.
- Esku-hartzeko irizpideak birgaitzean egokitzea eta hobetzea, bereziki 214/1996 Dekretuko 1. Eranskinean daudenak. Hitzez hitz ipini ziren Euskal Kultur Ondarearen Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerapenaren testuan.
- Beharrezkoak diren bitartekoak sortzea (Foroak, Batzorde Mistoak, Programa-itxurako aurrekontuko diru-hornidurak), administrazio publikoen eta erakunde pribatuen kezkak, ikuspegiak eta ekintzak partekatzeke, egiaztatzeke eta adosteko.

2. *Baliabideak indartzea (trebakuntza, enplegua, lankidetzak, eta abar)*

- Ondare arkitektonikoaren esanahiaren inguruan adostasun soziala sustatzea eta lortzea, profesionalen eta administrazioaren gaitasun teknikoa hobetuta. Ondarea eta bere potentzialtasuna balioztatzeke dituzten irizpideetan, argi eskaini beharko dute, duten joera.
- Elkarlanerako bitartekoak eta ildoak erakartzea Unibertsitatearekin, batez ere, Ondare Arkitektonikoarekin erlazioa izan dezaketen jakintza-arloekin: Arkitektura (ez dago trebakuntza espezializaturik), Hirigintza, Arkeologia, Topografia, Geografia, Historia, eta abar.
- Ardurako banatuko diren taldeak sortzea; kultur trukearen eta ez "bartzertzearen" alde egingo litzateke.

3. *Erakundeak, erakunde eragileak eta enpresa-sektorea.*

- Arkitekturaren Euskal Museoaren egitasmoa berreskuratzea; Eusko Legebiltzarrak 1995ean onartu zuen Euskal Museo Nazionalen Planean, euskal arkitektoen 100 agiritegi pribatutan baino gehiagotan dagoen dokumentazio-materiala aintzat hartzeko eta biziberritzeko. Gutxi gorabehera XIX. eta XX. mendeetako euskal arkitekturaren inguruko 3,5 milioi dokumentu daude.
- EAEn gai horietarako Trebakuntza Zentro bat jartzea. Beste administrazio eta erakunde batzuek dagoeneko abian jarri dituzten ekimen ugari batzea, dagoen hutsunea dela eta.

4. *Produktu-irizpideak eta zeharkako elementuekin dagoen erlazioa (euskara, kultura, turismoa...)*

5. *Balio-kateari eta kudeaketari buruzko alderdiak.*

5.1. Ikerkuntza eta teknologia berriak.

5.2. Zainketa.

5.3. Kontserbazioa eta zaharberritzea.

-Eraikin historiko batean esku hartzeko garaian, Eraikitako Ondarearen balio guztiak gehiago errespetatzea. Balio Historikoak, Berezitasuna eta Balio Arkitektonikoak kontuan izanik monumentuaren Eredugarritasuna maila berean jarri behar lirateke.

5.4. Balioztatzea eta hedatzea.

- Eraikitako ondarearen ezagutza eta esperientzia zabaltzeko mekanismoak hobetzea, hainbat argitalpenen, Interneten eta hezkuntza-programen bidez. Ondarea hezkuntzan behar bezala jorratzeko baliabideak eta laguntzak sortu behar lirateke.

5.5. Ondarearen Kudeaketaren eredu hobetzea.

- Behin-behineko inbentarioak eta katalogoak etengabe eguneratzeko beharra dago –baita, oro har gertatzen den bezala, funtzionatzen hasten denean ere–, ondare arkitektonikoa behar den bezala kudeatzeko.

6. *Kultur kontsumoa dinamizatzea eta ondarea nazioartean zabaltzea.*

- Ondare-eraikinetarako sarrera modu eraginkorrean bermatzea. Horretarako, behar beste, seinaleak ipini beharko dira, homogeenak eta, batez ere, eduki ona dutenak.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK

1. Zaharberritzea ezagutza-prozesu gisa ulertzea, zeina ezinbesteko oinarria baita ondare arkitektonikoan edozein hobekuntza egiteko.
2. Babes daitezkeen eraikinak identifikatzea, errolda orokor bat eginda. Inbentario zientifiko orokorraren itxura izango du, eta metodologia batean oinarrituko da, hizkuntza batean eta interpretazio eta balorazio komunaren irizpideen kodean.
3. Euskal Kulturaren Ondarearen Zentroa sustatzea, eraikitako ondarearen dokumentazio-zentroa izateko. Horretarako, beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabideak jarriko dira.
4. I+G politikak indartzea ikerkuntza eta elkarlan zientifikorako ezinbesteko tresna gisa, higiezinaren ondarea zaintzeko, eta gai honetako Ikerkuntza Estrategikoen Programa berreskuratzeko; programa hori Eusko Jaurlaritzak onartu zuen, eta etenda dago gaur egun, dirurik ez dagoelako.
5. Kulturaren intereserako diren ondasunak babesteko hirigintza arautzeko bidea erabiltzea (PTS Izapideak; Lurraren Legea egokitzea).